

## NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Barkos Lehendakaria euskara nafar guztien ondare izateko lan egitearen alde agertu da

*Euskaltzaindiaren ordezkariak hartu ditu, eta lankidetzazko beharra dagoela helarazi die*

Ostirala, 2016.eko maiatzak 6

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkos Euskaltzaindiaren ordezkariekin bildu da gaur goizean, Andres Urrutia lehendakaria buru zela. Nafarroako Jauregian egindako bileran, Lehendakaria nahiz Euskaltzaindiaren ordezkariak bat etorri dira honako gai honetan: lankidetzarako bideak indartzen jarraitzeko beharra dagoela eta lan egin behar dela euskara, Nafarroako bertako hizkuntza gisa, nafar guztien ondare komun moduan aitortua izan dadin.



Barkos Lehendakaria Euskaltzaindiaren ordezkariarekin.

Uxue Barkosek euskara eztabaida partidistetatik eta lehia antzuetatik urruntzeko garrantzia azpimarratu du, eta hizkuntz horren ospea berreskuratzearen alde agertu da askatasun nahiz borondatezko erabateko esparru batean. Lehendakariak, gainera, Euskaltzaindiak euskararen normalizazioan egindako lana aitortu du, eta Nafarroako Gobernuak erakunde horrekin duen lankidetzazko bere asmoa helarazi die.

Foru Gobernuak bi erakundeen artean laster onartuko den lankidetzazko hitzarmenerako zuzkidura ekonomikoa handitu du; hala, aurreko urteetan 80.000 euro zen, eta 2016an, berriz, 96.100 euro izango da.

Hitzarmen honek, Euskararen Corpus Onomastikoaren eta Nafarroako toponimia ofizialaren gaineko lanak jasotzeaz gain, proiektu berriak sustatzea du xede, bai eta "Mendaur" bilduman Nafarroako euskalkien aldaerei buruzko ikerketak argitaratzea ere; izan ere, 2012. urtetik ez da inolako lanik argitaratu.

Bi erakundeak Nafarroako euskalki-formak Euskaltzaindiaren Hiztegi Bateratuan sartzeko lankidetzazko ari dira, bai eta Euskaltzaindiak ematen duen hizkuntz kalitatearen zerbitzuarekin ere.

Euskaltzaindia hizkuntzaren arauak finkatzeko erakunde aholku-emailea da, eta Administrazioak beharrezkoak iruditzen zaizkion nahi adina txosten edo irizpen eskatu ahalko ditu (Euskararen 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa).

Bileran izan dira, Euskaltzaindiaren aldetik, Andres Urrutia lehendakariarekin batera, Xabier Kintana idazkaria; Sagrario Aleman diruzaina; Adolfo Arejita euskaltzaina; Andres Iñigo euskaltzaina eta Nafarroako ordezkaria; Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.